


LENGUA EUSKARA



(RONCESVALLES)


BALADA ESCRITA EN EL DIALECTO GUIPUZGOANO

POR

Don Arturo Campion.

Acompañada de versiones á los dialectos bizcaino, labortano y suletino y de diez y ocho variedades dialectales de la region bascongada de Xabarra desde Olazagutia hasta Rocea.

PRECEDIDA DE UNA INTRODUCCION Y SEGUIDA DE OBSERVACIONES
GRAMATICALES Y LÉXICAS.



BAMPONA

IMPRENTA Y LIBRERIA DE JOAQUIN LORDA

CALLE DE MERCADERES, NÚM. 19

1880.



ORREAGA.

VERSION AL DIALECTO BIZCAINO POR D. LUIS DE IZA Y AGUIRRE.

I.

Gaberdiya da. Karlomano Erregia Auritzber-
rrin dago bere guda-gende gustiagaz. Zeru
illunian ez da agiri, ez illargik, ta ez izarrik;
urrutiyanugar andiyak argituten dira men-
diyentartian; Prantzesak kantaten dagoz erriyan;
Altabizkarko inguruetan entzuten dira otsuen itzugarrizko

marruak eta Euskaldunak zorrotzen dabeez bitartian euren yaurtigeyak eta aizkorak Ibañetako aitz eta arriyetan.

II.

Larritazunagaz Karlomanok ezin dau ló egin; oyaren onduan bere gela-mutilchu batech irakurten dau amodiozko upiñ bat; pizka bat urrutiago Erroldan indartsuak garbitzen dau bere Durandarte ezpat famatua, eta Turpin arzopizku onak errezaten deutsa Yaungoikoaren Ama santubari.

III.

Niré gela-mutilchua,—diño Karlomano Erregek;—zer dá gabaren isilltasuna austen daben ots ori?—Yauna,—erantzuten deutsa gela-mutilchuak;—Iratiko, ichasua baño andiyago basoko orbelak aiziak dabiltzanak dira.—Ahi gazte maitia, criotziaren diadarra dirudi, eta neure biotza bildur dá.

IV.

Gau osua illuna dá. Ez illargik, ez izarrik agiri da zeru-

betan; urrutiyan sugar andiyak argituten dira mendiyentartian; Prantzesac lo dagoz Auritz-berrin; Altabizkarko inguruetan otsuak marruka dabiltz, eta Euskaldunak zorrotzen dabe bere yaurtgei ta aizkorak Ibañetako aitzetan.

V.

Zer dá ots ori?—itanduten dau barriró Karlomanok,— eta gela-mutilchuak, luagaz amaiturik, ez deutsa erantzuten.—Yauna,—diño Erroldan indartsuak;—mendiko uyo-la dá, Andresaroko ardi-taldeen béedia da.—Intziri bat diruri,—erantzuten dau Prantzez erregiak.—Egiya dá, Yauna,—diño Erroldanek;—erri onek negar egiten dau gure gogua yatorrenian.

VI.

Laritzunagaz Karlomanok ezin lorik egin dau; lur eta zeruak argigabe dagoz; otsuak marruka dabiltz Altabizkarren; Euskaldunen aizkorak eta yaurtgeyak chimizten dabe Ibañetako ariztartetan.

VII.

Ah!—sispuruka diño Karlomanok.—Ezin luak artu

nau; sukarak erreten nau. Zer dá ots ori?—Eta Erroldanek, luan luaz, ez eutsan emon erantzunik.—Yauna,—diño Turpin onak,—errezau egizu, errezau egizu nigaz. Abarrots ori Euskal-erriko gerra-kantua dá, eta gaur da gure aomenaren azkeneko eguna.

VIII.

Eguzkiyak argituten ditu mendiyak. Karlomano garaitua igezik dua «bere kapa gorri, eta bere luma beltzeko chapelagaz.» Umiak eta andraak dantzan dabiltz pozan pozaz Ibañetan. Erbestekorik ezdago Euskal-erriyan, eta menditarren irrintziak elduten dira zerubetaraño.

